

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak NPBarri buruz eztabaidatuko duen Eskualdeen Batzordean parte hartuko du ostegun honetan Bruselan

Aurrez, Europar Batasunean Espainiak enbaxadore duen Alfonso Dastis-ekin bilduko da

Lunes, 30 de abril de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina ostegun honetan, maiatzak 3, Bruselara joango da Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordearen 95. osoko bilkuran parte hartzeko. Hura erkidegoaren politikak eta legeria egiteko prozesuan tokiko eta eskualdetako erakundeei ahotsa ematen dien batzordea da.

Hilaren 4ra arte, ostiralera arte, luzatuko den bilkuraren gai-zerrendako puntu garrantzitsuetako bat ([erantsitako programa](#)ren arabera), Kohesio Funtsei buruzko eztabaida izango da, eta baita 2013tik aurrera egin beharreko Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) eta Landa Garapenaren erreforma ere. Programak barnean hartzen du ere, Europako Kontseiluko lehendakari Herman Van Rompuy-ren agerraldi bat.

Aldez aurretik, Barcina Lehendakaria Europar Batasunean Espainiak enbaxadore duen Alfonso Dastis-ekin bilduko da; enbaxadorearekin, 2014-2020 aldirako erkidegoaren hainbat urtetarako finantza-eremuari lotutako gaiak aztertuko ditu, bai eta Kohesio Funtsei eta ekonomiari lotutako gaiak ere.

Yolanda Barcina, halaber, Europar Batasunean Espainiako enbaxadore ordezkari ondoko iraunkorra den José Pascual Marco-rekin bilduko da, erkidegoaren politikak aztertzeko ondorengo alorretan: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (I+G+B), enpresa, nekazaritza (NPB), enplegua eta hezkuntza, besteak beste.

Lehendakariaren programaren barnean, bestalde, Europako Alderdi Popularrarekin (PPE) bilduko da Eskualdeen Batzordearen osoko bilkura prestatzeko, eta Europar Batasuneko Eskualdeen Batzordean Espainiako ordezkari osatzen duten gainerako agintariekin ere bazkalduko du.



Barcina Lehendakaria 2011ko urriaren 11n egin zen Eskualdeen Batzordeko osoko bilkuran.